


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hizkuntza-aldaeren itzulpena ikus-entzunezko testuetan

Ikaslea:

Lierni Varela Egiguren

Itzulpengintza eta Interpretazioa

Irakaslea:

Josu Barambones Zubiria

Ingeles eta Aleman Filologia

Itzulpengintza eta Interpretazioa

Euskal Herriko Unibertsitatea

2014/2015 ikasturtea

LABURPENA

Artikulu honen helburua ingelesetik euskarara itzuli diren ikus-entzunezko produktuetan azaltzen diren hizkuntza-aldaerak ikertzea da eta lanean hizkuntza-aldaera horiek euskaraz nola itzuli diren aztertu da. Hizkuntza-aldaeren gaia oso zabala da eta, gaia behar bezala kokatzeko, lehendabizi aldaera horiek definitu dira eta aldaerak irizpide batzuen arabera sailkatu dira.

Aldaerak edozein testutan ager daitezke eta itzultzailearen lana jatorrizko bertsioan sortutako efektua itzulitako testuan islatzea izango da eta, kasu batzuetan, erabaki hori hartzea ez da lan samurra izango, xede-hizkuntzan baliokiderik ez baita egongo.

Ikerlana, ordea, ikus-entzunezko testuetara mugatu da eta testu mota horien eta hizkuntza-aldaeren arteko erlazioaz ere aritu gara. Xede-hizkuntzat euskara hartu dugu eta telebistan ikus-entzunezko produktuen aurrean zer joera dauden ikusi ostean, lan honen jomugari heldu diogu: euskaratutako filmen hainbat gidoitan agertzen diren hizkuntza-aldaeren aurrean nola jokatu den behatu dugu. Aztertu ditugun filmak *Kolore Purpura*, *Harry Potter* eta *Snatch* izan dira.

Lan honekin lortu nahi dena zera da: hizkuntza-aldaeren garrantziaz jabetzea eta kontuan izatea aldaera horiek hiztunaren hizkeraren zati garrantzitsu bat direla eta beren efektua edukiko dutela hartzailearengan. Arrazoi horregatik, ez dira garrantzirik gabeko xehetasunak eta aintzak hartu behar dira.

AURKIBIDEA

1. HIZKUNTZA-ALDAERAK	4
1.1. HIZKUNTZA-ALDAERAK ERABILERAREN ARABERA: ERREGISTROA	5
1.1.1. EREMUA	6
1.1.2. MODUA	7
1.1.3. TONUA	8
1.2. HIZKUNTZA-ALDAERAK ERABILTZAILEAREN ARABERA: DIALEKTOA	9
1.2.1. GEOLEKTOAK EDO DIALEKTO GEOGRAFIKOAK	9
1.2.2. DENBORAZKO DIALEKTOAK	10
1.2.3. SOZIOLEKTOAK	11
1.2.4. DIALEKTO ESTANDARRA	13
1.2.5. IDIOLEKTOA	13
1.2.6. ARGOTA ETA TABUA	14
2. HIZKUNTZA-ALDAERAK ETA ITZULPENGINTZA	14
3. IKUS-ENTZUNEZKO TESTUEN ITZULPENA	16
3.1. IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENGINTZA ETA HIZKUNTZA ALDAERAK	18
3.2. IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENGINTZA EUSKARAZ	20
4. HIZKUNTZA-ALDAERAK EUSKARARA ITZULITAKO IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKTUETAN: ANALISIA	21
4.1. <i>KOLORE PURPURA</i>	23
4.1.1. <i>BLACK ENGLISH</i>	23
4.1.2. TONUA	29
4.2. <i>HARRY POTTER</i>	30
4.2.1. HAGRIDEN IDIOLEKTOA	31
4.3. <i>SNATCH</i>	33
4.3.1. TONUA	34
4.3.2. AZENTUA	37
5. ONDORIOAK	38
6. BIBLIOGRAFIA	40

1. HIZKUNTZA-ALDAERAK

Itzultzaileek itzultzeko orduan hainbat arazori aurre egin behar diete eta arazo horien artean artikulu honetan aztergai ditugun hizkuntza-aldaeren itzulpena dago. Mayoral (1997) eta Fernández eta Samaniego (2002) bat datoz esatean hizkuntza-aldaerak definitzea lan nekeza dela. Lehenengoak aipatzen du gutxi ausartu direla definizio zehatz bat ematera, hala eta guztiz ere, itzulpengintzaren inguruko ikerketetan gehien aztertu diren aspektuen barruan kokatzen dira, baita eztabaidatuenetan ere.

Hizkuntza-aldaerez ari garenean, ez gara mugatzen leku jakin bateko hiztunen ahotan dabilen hizkuntzaren ezaugarri komun zein desberdinez hitz egitera. Horrekin zera adierazi nahi dugu, hizkuntza-aldaerez ari garenean ez garela irizpide geografikoan soilik oinarritu behar; hizkuntzek tokian tokiko ezaugarri bereziak dituzte (Estatu Batuetan, Ingalaterran eta Indian ez ingeles bera erabiltzen), baina irizpide geografikoaz gain beste hainbat ezaugarri definitzen dute artikulu honetan ikusiko dugun hizkuntza-aldaeren kontua.

Beraz, aldaerez ari garenean, hizkuntza-heterogeneotasunaz ari gara, hau da, edozein egoera linguistikotan ager daitezkeen aldaera posibleak hartu behar ditugu kontuan. Aldaera horiek hizkuntza-kode osoaren barruan dauden multzo txikiagoak dira (Larrinaga, 2003) eta egoera komunikatiboaren arabera ezaugarri jakin batzuk izango ditu hiztunak erabilitako hizkerak.

Catfordek (*in* Fernández eta Samaniego, 2002: 328) dio hizkuntza aldaera horiek “azpihizkuntza” bat osatzen dutela eta hiztunak “azpihizkuntza” batera edo bestera joko duela egoera soziolinguistikoaren arabera; beste era batera esanda: egoera komunikatiboaren arabera hizkuntza-kode jakin bat erabiliko da, egoerara moldatuko da hizkera.

Agostek (1998) azaltzen duen bezala, hizkuntza batean bi joera nagusi aurki ditzakegu. Alde batetik joera bateratua ikusi ohi da komunitate batean, non hiztunen hizkerak homogeneousotasun bat mantentzen duen eta hainbat ezaugarri komun partekatzen dituzten. Bestalde, gizarte berean bereizteko joera topatuko

dugu, hiztun bakoitzak ezaugarri propioak dituelako hitz egiteko orduan eta, ondorioz, hizkuntza homogeneo hori zatitu egiten da.

Esan bezala, hizkuntza-aldaeren inguruan hamaika lan idatzi dira. Adituak aldaera horiek sailkatzen saiatu dira eta askok Hatim eta Masonek 1990ean proposatu zuten bi ataleko banaketara jotzen dute (Hatim eta Mason, 1990: 46). Hona hemen taula:

LANGUAGE VARIATION	
USE	USER
registers, etc.	dialects, etc.
1. field of discourse	1. geographical
2. mode of discourse	2. temporal
3. tenor of discourse	3. social
	4. (non-) standard
	5. idiolectal

Taulan ikus daitekeen modura, Hatim eta Masonek erabilerarekin lotutako hizkuntza-aldaerak eta erabiltzailearekin lotutakoak bereizten dituzte eta artikulu honetan ere eredu horri jarraituko diogu.

1.1. HIZKUNTZA-ALDAERAK ERABILERAREN ARABERA: ERREGISTROA

Hiztunok, hitz egitean, mintzatzeko dugun modua egoerara moldatzen dugu eta Hatim eta Masonen (1990) ustetan, modu kontzientean egiten ditugun estilo aukeraketa horiek erregistroaren barruan kokatzen dira, hots, erabileraren arabera hizkuntza-aldaeretan. Zerk baldintzatzen du, ordea, erregistro bat edo bestea hautatzea? Testuingurua izan liteke faktoreetako bat, erregistroa egoerara molda baitezake hiztunak: egoera formal batean hizkera landu eta terminologia jakin batean hitz egin dezake eta hiztun berak lagunarteko hizkera informalerara jo dezake beste egoera batean.

Erabileraren arabera hizkuntza-aldaerak hiru azpitaldetan banatzen dira: eremua, modua eta tonua.

1.1.1. Eremua

Fernández eta Samaniegok (2002) diote hiztunak jardueraren arabera hautatzen duen hizkera mota dela. Egoera komunikatiboaren arabera hiztunak gai jakin batean terminologia espezializatura edota maila baxuagoko hizkerara joko du, eta hautaketa hori hiztunaren gaiarekiko jakituria-mailaren menpe egon daiteke. Horrez gain, entzuleak ere badu bere eragina; izan ere, hizlariak moldatu egin dezake darabilen hizkera-erregistroa entzulearen gaiarekiko ezagutza-mailara egokituz.

Nahiz eta aditu batzuek eremua eta gaia gauza bera direla esan, Hatim eta Masonek (1990:48) azpimarratzen dute hori ez dela horrela. Hasteko, topa gintezkeelako eremu batean non hainbat gai jorratzen diren; adibidez, diskurtso politiko bat izan liteke eremua eta, bertan, zuzenbidez edota zerga-sistemaz hitz egin. Arlo zehatz bati buruz soilik hitz egiten den egoeretan izango dira gaia eta eremua bat, esaterako, fisika kuantikoari buruzko hitzaldi batean.

Fernández eta Samaniegok (2002) eremua hiru ataletan banatzen dute:

1.1.1.1. *Hizkera espezializatua*

Eremu jakin batean erabiltzen den hizkera espezializatua terminologia zehatzez beterik egon ohi da. Hizkera mota hori gai jakin bat ongi menperatzen duten hiztunek erabili ohi dute. Orokorrean, arloko adituen artean erabiltzen da, edota aditu eta ia adituen artean (doktorego tesia prestatzen ari den ikaslea, kasu). Esan beharra dago egoera komunikatiboan parte hartzen duten guztiek izan behar dutela aditu arlo jakin horretan, hau da, arkitekto batek eta hizkuntzalari batek, orokorrean, ez dute hizkera mota hori erabiliko, nahiz eta bata zein bestea aditu izan dagokion espezializazioan. Hizkera espezializatura joko duten hiztunak eremu bereko edo bertsuko adituak izango dira.

Gainera, Fernández eta Samaniegok (2002) hizkera espezializatuaren barruan bi maila bereizten dituzte: diskurtso profesional biunibokoa (aditua - aditua) eta diskurtso profesional unibokoa (aditua – ikaslea), non terminologia zehatza dibulgazioko terminoekin, sinonimoekin eta azalpenekin nahasten den.

1.1.1.2. *Hizkera dibulgatzailea*

Komunikazioa aditu, erdi-aditu edo sasi-aditu baten eta gaien ezagutza sakonik edota batere ezagutzarik ez duen baten artean gertatzen da. Kasu horretan, gai jakin bati buruz hitz egin daiteke baina terminologia espezializatura jo gabe.

1.1.1.3. *Hizkera espezializatu gabea*

Gure egunerokotasunean erabili ohi duguna. Ez da termino berezirik erabiltzen.

Beraz, hiztunak erabili behar duen hizkera-mailaren arabera lexiko, sintaxi, ... maila jakin bat hautatuko du eta aukeraketa hori askotan hartzaileak zehaztuko du.

1.1.2. Modua

Komunikazioa bermatzeko erabiltzen den bideari egiten dio erreferentzia, hau da, mezua transmititzeko erabiltzen den kanalari. Larrinagak (2003) hiru kanal bereizten ditu:

1.1.2.1. *Ahozkoa*: hartzaileak entzumenaren bidez jasotzen du mezua.

1.1.2.2. *Idatzizkoa*: hartzaileak ikusmenaren bidez jasotzen du mezua. Itsuen kasuan, braillea ukipenaren bidez.

1.1.2.3. *Mistoa*: ahoz esateko prestatzen den idatzizko testua. Testu mota hori erabili ohi da komunikabideetan. Kanal honen barruan puntu bat gehitu nahi genuke, kanal mistoaren kontzeptua osatuko duelakoan.

Gor-mutuentzat egokitutako komunikazioa: ikusmenaren bidez jasotzen da mezua baina transmisioa hitzen bidez, idatzizko testuetan edota ahoz egin beharrean, keinuen bidez igortzen da.

1.1.3. Tonua

Komunikazio-egoeraren arabera, hiztunak hizkera-maila edo erregistro jakin bat hautatuko du. Egoera hori igorlearen eta hartzailearen arteko harremanak zehatz dezake, edota bi banakoek hizketaldia garatzen duten esparruak, adibidez, bi pertsonak oso harreman estua izan dezakete egunerokotasunean, baina bilera edota konferentzia batean lagunarteko hizkerara jo beharrean modu formal batean hitz egin dezakete, egoera horrek formalitatera jotzea eskatzen baitu.

Orokorrean, adituek honako sailkapen hau egiten dute tonua definitzean:

- Oso formala
- Formala
- Neutroa
- Informala
- Oso informala (maila honetan argota eta tabua sartuko lirateke).

Kontuan hartu behar da ordea, Hatim eta Masonek (1990) diotena: aipatu berri ditugun kategoria horiek *continuum* bat osatzen dute eta beren arteko mugak lausoak izan daitezke.

Tonu-maila bakoitzak bere efektua sortuko du testuan zein hartzailearengan eta itzultzaileak efektu bera sortzen saiatu behar du testua itzultzen duen bitartean, sorburu-hizkuntzan (SH) agertzen diren formen baliokidea eman behar du xede-hizkuntzan (XH), hau da, baliokidetza diskurtsiboa lortu behar du eta horrek hamaika buruhauste ekar liezazkioke itzultzaileari.

1.2. HIZKUNTZA-ALDAERAK ERABILTZAILEAREN ARABERA: DIALEKTOA

Ez dago zalantza izpirik hizkuntza aldakorra dela, etengabe elementu berriak txertatzen direla eta, aldi berean, beste erabilera batzuk zaharkitu eta erabileratik kanpo gelditzen direla.

Aldakortasun horiek sozio-historikoak izan daitezke –Axularren garaian ez zen gaur egun bezala hitz egiten–, baita geografikoak ere, herriz herri euskara aldatu egiten baita, euskararen aldakortasun hori anitza eta oparoa da.

Ezaugarri mota horiek dialektoei eskutik lotuta doaz eta Fernández eta Samaniegok (2002), Hatim eta Masonek (1990) eta beste hainbat adituk erabiltzailearekin zerikusia duten hizkuntza-aldaeretan kokatzen dituzte. Dialektoen barruan, Hatim eta Masonek (1990) hainbat dialekto mota bereizten dituzte: dialekto geografikoak, denborazko dialektoak, soziolektoak, dialekto estandarra eta idiolektoak. Aipatu berri ditugun dialekto horiek jarraian azalduko ditugu:

1.2.1. Geolektoak edo dialekto geografikoak

Jakin badakigu hizkuntza bizi bat ez dela leku guztietan berdin hitz egiten: ez dugu frantses bera entzungo Frantzian, Belgikan, Quebecen edota Kongon, adibidez. Hori bizirik dauden hizkuntza guztiekin gertatzen da, baita euskararena bezalako hiztun-komunitate txikietan ere.

Aldakortasun hori sailkatu egin daiteke herrialdearen arabera (Ipar Euskal Herriko euskaldunak, Hego Euskal Herrikoak eta Boicekoan, adibidez), eskualdearen arabera (probintzien arabera: Gipuzkoa, Bizkaia, Zuberoa ... baita probintzien barruko eskualdeen arabera ere: Urolaldea, Goierri eta abar) eta, azkenik, habitataren arabera ere bai (landa ingurukoa edo hirikoa).

Leku geografiko desberdinetan hitz egiten den hizkera hiztunek darabilten sintaxi, hiztegi eta abarretan bereiz daiteke, hau da, esaten dena hitzez hitz idatziko bagenu, nabarmenduko genuke gauzak ez

direla guztiz berdin esaten. Bereizmen horri ezaugarri fonetiko bat gehitu behar zaio: azentua. Askotan, bi pertsona zonalde desberdinetakoak direla azentuari esker jakin ohi dugu, melodia desberdinez hitz egiten baitute.

Testu bat itzultzean, aipatu berri ditugun dialekto geografiko horiek arazoak sortu ohi dituzte; izan ere, dialekto bat ezin da beste hizkuntza bateko ordezkari garbia izan. Itzultzaileari irudi dakiokoe xede-hizkuntzako dialekto batek sorburu-hizkuntzako dialektoaren antzeko ezaugarri extralinguistikoak dituela, hala nola, bi dialektoak landa inguruan hitz egitea, herri txikiren batean, kokapen geografikoari dagokionez iparraldean hitz egitea... baina kontuan hartu behar du dialekto batek ez duela beste bat ordeztuko eta hartzailearengan sor dezakeen inpresioa ere ez dela berdina izango. Mota horretako itzulpenetan itzultzaileak erabaki egin behar du zer egin eta gaur egungo joera estandarera itzultzea da.

1.2.2. Denborazko dialektoak

Bizirik dauden hizkuntzak etengabe aldatuz doaz eta gaur egun hitz egiten den modua desberdina da iraganekoarekin alderatuz gero.

Itzultzaileak iraganeko hitz egiteko eran idatzitako testu bat itzuli behar badu, erabaki egin beharko du zer kutsu eman itzulitako testuari. Zaila da ordea denbora jakin horretan xede-hizkuntzan hitz egiten zen modua menperatzea.

Denborazko dialektoa itzultzea, beraz, zaila da. Euskararen kasuan erronka ez da makala, adibidez, imajinatu XVIII. mendeko testu bat itzuli behar dela. Itzultzaileak ez luke izango garai hartako euskara baturik, eredu bat faltako litzaioke eta XVIII. mendeko euskal idazleen idazteko era aztertu beharko luke. Gainera, euskara baturik egon ezean, garai hartako dialekto geografikoren batera itzultzea erabaki beharko luke, eta bigarren buruhaustean murgildu euskalki guztietatik zein aukeratu erabakitzeko. Ondorioz, eta ikerketa eta buruhauste horiek ekarriko luketen denbora aurreztearren, itzultzaileak egin lezakeen

onena hizkera estandarrera itzultzea dela uste dugu, hau da, egungo euskara batuan itzultzea.

1.2.3. Soziolektoak

Gizarte batean hainbat talde bereiz daitezke parametro batzuen arabera eta talde horietan ezaugarri batzuk agertuko dira. Fernández eta Samaniegok (2002) eta Mayoralek (1997) honako banaketa hauek aipatzen dituzte:

1.2.3.1. *Adina*

Generazio ezberdinetako jendeak ezberdin hitz egiteko joera du. Alderik handiena maila lexikoan dagoela uste dugu, gazteek hitz eta molde berri asko txertatzeko joera baitute. Askotan, ordea, modak besterik ez dira izaten eta denboraldi baten ostean, gizartean asko zabaldu ez bada, erabilera ezaren ondorioz moldeok desagertu egiten dira.

1.2.3.2. *Sexua*

Gaia benetan polemikoa da, izan ere, Mayoralek (1997) dioen bezala, hainbat aditu saiatu dira gizon eta emakumeek ezberdin hitz egiten dugula eta sexuak hitz egiteko era baldintzatzen duela azaltzen eta nahiko akusazio zorrotzak ere egin dira. Adibide gisa Otto Jespersen aipatzen du. Jespersenek *Language: Its Nature,, Development and Origin* obran, “The woman” kapituluan, adierazpen batzuk egiten ditu, besteak beste: hizkuntzari dagokionez emakumeak kontserbadorek direla eta gizonezkoak berritzaileak, emakumeen hiztegia urriagoa dela, azkarrago hitz egiten dutela eta abar. Mayoral (1997) ez dator bat eta guk ere ez dugu uste gaur egun sexuaren arabera bereizketarik egin beharko litzatekeenik hizkuntza-aldaerak sailkatzean, euskarari dagokionez, gutxienez.

1.2.3.3. *Erljioa*

Erljioak ere badu hizkuntzan bere eragina eta hiztunek erljioarekin lotutako espresioak erabili ohi dituzte, adibidez: *Jainkoarren!, oh my God!, ¡la virgen!...* (komunitate kristaueetan); *insha'Allah, Bismillah...* (musulmanetan) eta abar. Komunitate bakoitzak bere esamoldeak ditu eta, adibidez, kristautasunarekin lotutako esamoldeak balin baditugu euskaraz ere jada izango ditugu molde horiek; aldiz, arabierako espresio bat agertzen bada, hor dago gakoa eta normalean ez da itzultzen.

1.2.3.4. *Jasotako hezkuntza-maila*

Mayoralek (1997) dioen modura, banakoak jasotako hezkuntza-maila, posizio soziala eta ekonomikoa askotan bat etorriko dira. Pertsona batek ikasketak burutu baditu hizkuntza estandarra ezagutuko du eta, orokorrean, zenbat eta hezkuntza-maila altuagoa izan, orduan eta ezagutza hobeak izango ditu hizkera jasoari dagokionez. Gainera, hizkera-maila baxuenetik altuenera bitartean dagoen erregistro sortan erosoago ibiliko da.

Itzultzeko orduan, itzultzaileak pertsonaiek gizartean duten posizioa eta hezkuntza-maila kontuan hartu behar ditu eta, adibidez, sorburu-hizkuntzan pertsonaia batek akats gramatikalak egiten baditu arrazoi jakin bat dela medio, uste dugu xede-hizkuntzako itzulpenean ere ezaugarri hori agertu beharko litzatekeela.

1.2.3.5. *Ideologia*

Eragina izan dezake terminologia aukeratzeko orduan, adibidez, gaztelaniaz krisiaren inguruan ari garenean entzuten ditugu honelakoak: *crecimiento negativo (disminuciónen orde), reformas estructurales (recortesen orde)...*

1.2.4. Dialekto estandarra

Euskararen kasuan euskara batua deitzen diogu. Mayoralen (1997) ustez dialekto estandarra arau multzo bat besterik ez da. Euskara batua Euskaltzaindiak eta euskal gizarteak adostutako arauz osatutako euskalkia da, euskal komunitateak elkar ulertzeko eta batasuna lortzeko sortua.

Hizkuntza batzuetan estandarra hizkerarik hedatuena da, gehiengoak hitz egiten duena eta estandartzat hartzean nolabaiteko prestigioa eskuratzen duena. Kontua zera da, Fernández eta Samaniegok (2002) dioten moduan, estandarretik edo horren arauetatik irteten den molde oro okertzat jotzeko joera dagoela eta hori ez da horrela, dialekto bakoitzak bere ezaugarri propioak baititu eta horri esker baita hizkuntza bat hain anitz eta aberatsa.

1.2.5. Idiolektoa

Norberaren hitz egiteko estiloa da. Gregory eta Carrolek (*in* Mayoral, 1997: 32) dioten gisan, “dialekto indibiduala” da eta hitz egiteko era bakar hori pertsona bati lotuta dauden ezaugarri linguistikoen multzoa da.

Idiolektoak, gainera, ez dira zurrinak. Mayoralek (1997) dioten bezala, hiztunak egoera komunikatiboaren arabera era batera edo bestera hitz egiten du, bere hitz egiteko modua moldatuz. Beraz, banakoaren idiolektoak hainbat erregistro hartzen ditu era berean. Horren inguruan Fernándezek eta Samaniegok (2002) zera diote: talde jakin bati lotutako idiolektoak daudela (idiolekto funtzionalak) –koadrilan, adibidez, hizkera bat gara daiteke talde barruan; edota pertsona zehatz bati zuzenduta egon daiteke hitz egiteko modua (idiolekto ez-funtzionala).

Itzulpenari dagokionez, idiolektoa identifikatuz gero, itzultzaileak erabaki egin beharko du pertsonaiaren hizkera nola adierazi xede-hizkuntzan. Aditu batzuen ustez, Newmark (*in* Fernández eta Samaniego, 2002: 340) kasu, itzultzailea bere idiolektoaz baliatu

beharko litzateke testuari ukitu naturala emateko. Beste aditu batzuk, ordea, ez datoz bat horrekin, Rabadán Alvarezek (*in* Fernández eta Samaniego, 2002: 340) dio itzultzaileak ez lukeela bere idiolektora jo behar.

1.2.6. Argota eta tabua

Hizkera informalarekin lotu ohi da. Mayoralen (1997) esanetan, informalitatea ahozko hizkera, dialektoa, maila baxuko soziolektoa, konfiantzazko elkarrizketa... bezalako ezaugarriekin lotzen da eta egia da kasu batzuetan lagunarteko hizkeraren eta tabuaren arteko mugak lausoak direla. Izan ere, lagunarteko elkarrizketetan tabu-hitzak erabil daitezke, tabuak izan ohi duen irain-kutsurik eduki gabe. Testuinguruak tabuaren gordintasuna ere definituko du eta, berriro ere Hatim eta Masonek (1990: 37) aipatzen duten ideiarda gatz: “The meaning of an utterance has to do with what the utterance is intended to achieve, rather than merely the sense of the individual words”. Hau da: esaldiak adierazi nahi duenak definituko du hitzaren esanahia, ez hitz isolatuak.

2. HIZKUNTZA-ALDAERAK ETA ITZULPENGINTZA

Aldaeren itzulpena oso gai garrantzitsua da eta Nidak (*in* Mayoral, 1997:42) argi uzten du hori: “Uno de los problemas más completos y sutiles a los que enfrenta el traductor es la correspondencia adecuada de los niveles estilísticos del lenguaje (...). En muchos aspectos, el tono de un texto (es decir, el estilo del lenguaje) produce un impacto mucho mayor, y a menudo contiene mucho más significado, que las mismas palabras”.

Bat gatz Nidarekin, hizkuntza-aldaeren mundua konplexua dela eta hainbat adar hartzen dituela ikusi dugu, faktore anitzek hartzen baitute parte. Hizkuntzaren heterogeneotasunaren adierazgarri dira eta Agostek (1998) dioen modura, itzultzailea aniztasun horretaz jabetu behar da. Mayoralek (1997) ere jabetze horren garrantziaz hitz egiten du eta kritikatzin du hizkuntza-aldaeren itzulpenak sortzen dituen arazoei nola aurre egin jakiteko ez dela soluzio nahikorik

planteatzen. Arazoari buruz hitz egin izan dela dio eta zailtasun horren kontzientzia badagoela, baina gaia gaineratik aipatzen dela iruditzen zaio eta, askotan, aipatzen denean dialektoen gaia baino ez dela lantzen azaltzen du, eta hori ez da nahikoa hizkuntza-aldaeren kontzeptua zabalagoa baita, eta beste hainbat parametro hartzen baititu bere baitan.

Horrez gain, soluzioak ematen dituztenak ahots bakarrean zentratzen direla aipatzen du. Pertsonaia bat hartu, hark aurkezten dituen hizkuntza-aldaerak aztertu eta horiei ematen dizkiete soluzioak. Halere, orokorrean, ahots bat baino gehiagorekin egingo du topo itzultzaileak, eta pertsonaiek manifestatzen dituzten hizkuntza-aldaera desberdinak testuinguru berean nola itzuli erabaki beharko du. Baliokidetasunarena da aipatzen den beste puntutako bat. Hizkuntza-aldaeren itzulpenean arazorik konplexuena xede-hizkuntzan baliokidea topatzearena da. Agosten (1998) artikulua dioenez, Catfordek (1965) uste du aldaeren funtzioak baliabide linguistiko bidez adierazten direla eta batzuetan ez dela posible baliokidea ematea. Aldiz, Nidaren (1964) aburuz, itzultzailearen gaitasunek zerikusi handia dute eta, beharrezko konpetentziak baditu, itzultzailea gai izango da baliokidea aurkitzeko.

Gehienak ados daude aldaeren baliokidea topatzeko dimentsio komunikatiboa kontuan izan behar dela (House, Halliday, Mcintosh eta Stevens *in* Agost, 1998: 88; Hatim eta Mason, 1990). Garrantzia sorburu-hizkuntzan sortu nahi den efektua xede-hizkuntzan sortzea da: hizkuntza baten bidez adierazi nahi dena bestean ere komunikatzea. Horren harira, Agostek (1998: 86) Pergnierrek 1983an argitaratutako obran agertzen den aipu bat txertatzen du eta guk ere hona ekartzea erabaki dugu, adierazgarria delakoan:

[...] le problème de la traduction n'est pas l'équivalent d'un terme de couleur dans l'autre langue. Il est de trouver le terme (n'appartenant pas forcément au champ conceptuel des couleurs) qui désigne le même concept dans l'autre langue [...].

Hatim eta Mason (1990) ere bat datoz ideia horrekin. Haientzat, esanahia hitzak edo enuntziatuak adierazi nahi duenak zehazten du, ez hitz solteak soilik. Alegia,


testuinguruak determinatzen du hitzaren esanahia. Larsonen (*in* Mayoral 1997: 56) ustez, gainera, esanahi horren barruan pertsonaiaren jarrera eta emozioak sartu ohi dira, hitzei zentzu bat edo bestea emanez. Esanahi horri emozio- edo konnotazio-esanahia deritzo.

Beste era batera esanda, baliokidetzaren dinamikoa aurkitu behar da. Ezinbestekoa da sorburu-hizkuntzan sortzen den, edo sortu nahi den, efektuaren bila joatea eta ez hitz solteen esanahia soilik itzultzea. Efektu horren bila joateko, itzultzaileak kontuan hartu beharko du testuingurua eta hizkuntza-aldaera bati lotuta dagoen hitz edo kontzeptu hori testuinguru horretara egokitu beharko du.

Ondorioz, Mayoralen (1997) hitzetan, baliokidetasunaren ideiarekin itzulezintasunaren ideia gaintzen da. Halere, nahiz eta itzultzaileak jakin testuinguruak moldeen esanahia baldintzatzen duela, zaila da uneoro gizartean puri-purian dauden moda guztiez jabetzea.

3. IKUS-ENTZUNEZKO TESTUEN ITZULPENEA

Ikus-entzunezko produktuetan esatariek, hots, pantailan mintzatzen ari direnek, parte aktiboa dute komunikazioan eta ikusleek, berriz, zati pasiboa osatuko dute; horiek saioari begira egoten dira, pantailaren aurrean zein estudioan. Esatari eta ikuslearen artean baliteke elkarrekintzarik ez egotea; kasu horretan ikuslea hartzaile pasiboa da eta komunikazioa norabide bakarrean burutzen da. Beste kasu batzuetan, berriz, platoon dagoen ikusleak esatariari erantzuteko aukera izango du, edota telefono bidez har dezake parte (Larrinaga, 2008). Hori grafikoki honela erakuts liteke:



Bakarrizketa batean (albisteetan, adibidez), igorlea eta ikuslea besterik ez lirateke egongo eta geziak adierazten duen norabidean burutuko litzateke komunikazioa. Aldiz, telebista barruan dialogoa badago (telesailetan, tertulietan...), igorlea pantailan bertan agertzen den hartzaileari zuzenduko zaio, hots, hartzaile aktiboari, eta aldi berean pantaila atzean dagoen ikusleari ere igorriko dio mezua, hartzaile pasiboari, alegia. Larrinagak (2003) dioenez, filmetan, telesailetan eta abar, pantailaren atzetik behatzen duen ikusleak ez du parterik hartzen komunikazioan.

Nahiz eta hartzailea pasiboa izan, ez baitu solasaldian parte hartzen, berau da komunikazioan zatirik garrantzitsuena, mezua berak ulertzea baita helburua. Ikus-entzunezko produktuetan, lehen aipatu ditugun hiru moduak agertuko dira:

1. **Idatziz** ager daiteke mezua: irudietan hainbat idatzizko testu ager daitezke, hala nola: kaleko kartelak, aldizkarietako titularrak, deklarazio-dokumentu zatiak, atzean agertzen den denda baten izena...
2. **Ahoz** transmiti daiteke mezua: irudiak ikusten ditugun heinean, igorleak zer dioten entzun ere egiten dugu. *Reality show*ek, adibidez, bat-bateko ahozotasuna dute ezaugarri.
3. **Kanal mistoa**: hedabideetan gehien erabiltzen dena Larrinagaren (2003) esanetan. Film, dokumental eta telesail guztien gidoiak aurrez idatziz prestatzen dira, gero ahoz esateko. Gauza bera gertatzen da telebistako ia saio guztiekin.
Bestalde, lehen aipatu dugu kanal mistoan ez dela idatziz prestatu eta ahoz esaten den testua bakarrik sartzen, badaude-eta idatziz edota ahoz sortu eta keinuen bidez igortzen diren mezuak, gor-mutuentzat egokitutako ikus-entzunezko testuak, alegia.

Aipatu bezala, lan honen helburua ikus-entzunezko testuetan agertzen diren hizkuntza-aldaeren itzulpena aztertzea da; ingelesetik euskarara itzulitako testuak hartu ditugu jomugatzat eta filmetan zentratu garenez, kanal mistoa izango da

nagusi, hots, filmen gidoia idatzita egongo da gero aktore zein bikoiztaileek ahoz transmititzeko.

Hizkuntza-aldaeren inguruan hainbat lan egin dira eta ikus-entzunezko testuen itzulpenetan agertzen diren arazoez ere ikerketak burutu dira. Aldiz, ez da hainbeste landu hizkuntza-aldaeren itzulpena ikus-entzunezko testuetan. Argi izan behar duguna zera da: hizkuntza batetik bestera itzultzeko zailtasunak aurkezten dituzten aldaerak ikus-entzunezko produktuetan ere ageri direla, beste hainbat itzulpen motetan bezala. Itzulpengintzaren arlo espezializatu honetan, ordea, hainbat ezaugarriekin egingo dugu topo: sinkronizazioa, besteak beste.

3.1. IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENGINTZA ETA HIZKUNTZA-ALDAERAK

Caprara eta Sistik (2011) dioten modura, azken urteotan ikus-entzunezko itzulpengintza indarra hartuz joan da panorama akademikoan eta gero eta ikerketa gehiago egiten da gaiaren inguruan.

Ikus-entzunezko itzulpengintzan batik bat elkarrizketekin egiten da lan. Kanal nagusia ahozkoa izango da baina, aldi berean, irudiek lagundu eta argitu egingo dute elkarrizketaren testuingurua. Lehen aipatutako autoreek azaltzen duten gisan, pertsonaien aurpegiko espresioek eta gorputz keinuek garrantzi handia dute dialogoan edukian. Itzultzaileak, ondorioz, faktore hori ere kontuan hartu behar du itzultzeko orduan, informazio zinetikoa funtsezkoa baita.

Ikus-entzunezko itzulpenean bi itzulpen mota bereizten ditugu: batetik, bikoizketara zuzendutakoa eta, bestetik, azpitoluena.

1. **Azpitoluena itzulpena:** azpitoluuek pantailan denbora jakin bat pasatzen dute eta gero desagertu egiten dira. Caprara eta Sistik (2011) esaten dute ahoz esaten dena lehenago barneratzen dela irakurritz jasotzen dena baino. Ondorioz, eta pertsonaiek esaten dutenarekin bat joateko, ahoz igortzen den mezua, batzuetan, sintetizatu egin beharko da; izan ere, pantaila ezin dugu azpitolu luzeekin bete, ikuslea nekatu egingo

bailitzateke edota denborarik ez bailuke edukiko dena irakurtzeko (enbarazu ere egiten du filma letrez beteta ikusteak).

Azpitituluaren itzulpenak, beraz, baditu bere zailtasunak: espazioa, denbora, emozioak hitz urri batzuez soilik transmititzeko oztopoak... itzultzaileak “murrizketa selektiboa” egin beharko du (Mason, *in* Agost eta Chaume, *in* Caprara eta Sisti, 2011: 153). Aukeratu egin beharko du nola igorri mezua.

2. **Bikoizketarako itzulpena:** Caprara eta Sisti (2011) azaltzen dutenez, nahiz eta bikoizketan itzulpena karaktere kopuruaz eta pantailako espazioaz mugatuta ez egon, itzulpena egokitu egin beharko da denborara. Hots, eszenaren luzerak baldintzatuko du, baita pertsonaien aho mugimenduek ere. Bikoizketaren helburua da sorburu-hizkuntzan pertsonaiek hitz egitean igortzen duten egiazkotasuna transmititzea: ikusleari sinestaraztea pertsonaiek hizkuntza horretan hitz egiten dutela. Efektu hori lortzeko, itzultzaileak adi egon behar du pertsonaien ahoskerarekin, batik bat lehen planoekin, non aho mugimenduak garbi antzematen diren, eta isiluneak eta abarrak errespetatu behar diren.

Sinkronizazioarena ez da lan samurra: itzultzaileak, lehendabizi, hizkuntza batetik bestera itzuli behar du, itzulpenek dituzten arazoei aurre egin behar die (hizkuntza-aldaerenei barne) eta, ondoren, produktua bikoizketarako bada, elkarrizketak sinkronizaziora lotu behar ditu eta *on* eta *off* planoak ere kontuan hartu beharko ditu (*off* planoak errazagoak izango zaizkio, noski, pertsonaiak ez baitira lehen planoan ageri).

Hirugarren atal honen hasieran aipatu dugu itzulpenetan erabakiak hartzean gogoan izan behar dela ikuslea, bera baita mezuaren hartzaile nagusia. Caprara eta Sisti (2011) nahiz Larrinagak (2003) beren lanetan aipatzen duten legez, film eta telesailetan agertzen diren hizkuntza-aldaera asko, batik bat dialekto eta idiolektoak, neutralizatu egiten dira itzulpenean. Pertsonaien mintzaerak jatorrizko bertsioan erakusten duen bereizgarria desagertu egin ohi da. Joera azpitituluetan zein bikoizketan dago: ikuslearen ulermenaren alde egiten da,

nahiz eta horrek jatorrizkoa moldatzea dakarren. Ildo horretan, buruhauste handienak geolekto eta azentuek ekartzen dituzte, 1.2.1. puntuan ikusi bezala, ez baitago horien ordezkorik beste hizkuntza batean. Aurrerago berriro helduko diogu gai honi, aztertutako filmetako adibideez baliatuta.

3.2. IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENGINTZA EUSKARAZ

ETBk betidanik izan duen buruhausteetako bat telebistako produktuak zein euskara-mailatan edo motatan ematea izan da. Argi dago euskara oso anitza dela eta txoko bakoitzean era batera hitz egiten dela. Aniztasun horri nola erantzun izan du jomuga ETBk, Euskal Herri osoko ikusleek euskarazko film eta telesailekin goza dezaten. Soluzioak bilatzea, ordea, ez da hain erraza.

Bikoiztutako film eta telesailetan erabiltzen den euskara gogor kritikatu da ETB sortu zenetik. Telebista-kateko arduradunak, gainera, asko kezkatu dira bikoiztutako produktuak ez ote diren “ulergaitzak, ezerosoak, sinesgarritasunik gabeak” (Larrinaga, 2003). Izan ere, film eta telesailak euskara natural eta jatorretik urruntzen direla kritikatzeko da, bertan erabilitako euskara idatzizkora lotuegia dagoela. Kaleko euskararen ez ditugu idatziz agertzen diren letra guztiak ahoskatzen, hitzak “jan”, laburtu, egiten baititugu eta ETBri egotzi izan zaio bikoiztutako produktuetan euskara “garbiegia” erabili izana, errealitatetik urrundua.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, ETBk zenbait saiakera egin dituela ikusleari zer gustatzen zaion ikusteko: filmak itzuli ditu laburdurekin, gipuzkera kolokialaz baliatuz, bizkaiera sartuz, estandarrerara joz... eta, ondoren, iritziak jaso izan ditu (Larrinaga, 2003). Ondorio nagusiak honakoak izan dira: euskara batuan bikoiztutako produktuetako euskara hotza eta artifiziala da, naturaltasuna eta bizitasuna falta zaio eta, ondorioz, sinesgaitza da. Euskalkiekin, oster, euskalki hori erabiltzen ez dutenei arrotz egiten zaie eta zailagoa da ulertzea. Gainera, film batzuekin ez du funtzionatzen; izan ere, adibidez, Estatu Batuetako hirigunean kokatutako filmeko pertsonaiek gipuzkera itxian hitz egitea ez da batere erreal. SIADECO izan zen ikerlana aurrera eramane zuena

1991ean eta ondorio modura eredu estandarra erabiltzea erabaki zuen, baina sintaxi eta egitura sinpleekin, kaleko hizkerara gerturatu asmoz.

Telebistan, oro har, hizkera neutroa jotzen da, nahiz eta saio batzuetan kolokialerantz ere jo daitekeen, beti ere estandarretik gehiegi urrundu gabe. Hona hemen Larrinagak (2008: 42) egindako taula bat, non ikus-entzunezko hainbat arlotan erabiltzen diren hizkera motak azaltzen diren:

Saio motak	erregistroak	estiloak	mailak
<i>Publizitatea</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Albistegiak</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Emankizunak</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Magazinak</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Dokumentalak</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Erreportajeak</i>	mistoa	neuroa	erdikoa
<i>Lehiaketak</i>	mistoa + idatzizkoa	neuroa	erdikoa
<i>Elkarriketak</i>	Mistoa + ahozkoa	neuroa	erdikoa
<i>Filmak</i>	mistoa + idatzizkoa	denak	denak
<i>Telesailak</i>	mistoa + idatzizkoa	denak	denak
<i>Marrazki bizid.</i>	mistoa	denak	denak

4. HIZKUNTZA-ALDAERAK EUSKARARA ITZULITAKO IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKTUETAN: ANALISIA


Lanaren atal honetan alde praktikoan murgilduko gara. Helburu nagusia ingelesetik euskarara ekarritako filmetan hizkuntza-aldaerekin nola jokatu den behatzea da. Ikerketa aurrera eramateko, beraz, urratu beharreko lehen urratsa filma aukeratzea izan da. Jakin badakigu ingelesez milaka film baditugu ere, euskaraz horietako oso gutxi daudela bikoiztuta, beraz, aukera sorta asko murrizten da.

Lehenik eta behin, *Euskal Encodings* webgunean dauden film guztiak begiratu eta gehien sinopsia irakurri nuen. Laburpenetatik deduzitu egiten nuen filma baliagarria izango zitzaidan ala ez, eta erabilgarriak iruditzen zitzaizkidanekin zerrenda bat osatu nuen. Hasiera-hasieratik interesa nuen *Black Englisha* aztertzeko eta zerrendan *The Color Purple (Kolore Purpura)* azaldu zenean erabaki nuen filma aztertu egingo nuela.

Hainbat filmen gidoia atera dut lana egiteko, nahiz eta gero batzuk baztertu egin ditudan. Hasteko, azaldu egingo dut erabili dudana metodologia, film guztiekin prozedura bertsua erabili baitut, eta gero aukeratutako filmen xehetasunak azalduko ditut.

Filma aukeratu ostean, bi hizkuntzetako bertsoiak lortzeari ekin diot. Mota honetako lanak egiteko, garrantzitsua iruditzen zait ingelesezko bertsoan azpituak ere lortzea, ingelesa ez baita nire ama-hizkuntza eta ikerketa ongi burutzeko uste dut pertsonaiek esaten duten guztiaren informazioa eduki behar dela.

Filmaren dialogoak eskuz atera ditut. Hasteko, Word zuri batean, ingelesezko dialogoak transkribatu ditut (horregatik behar izan ditut azpituak, pertsonaiek azkar hitz egiten baitute eta, probatu dudana legez, eromena baita zuzenean laguntzarik gabe ingelesezko dialogoak oso-osorik ateratzea). Ingelesezko bertsoa transkribatu ostean, taulan sartu ditut dialogoak eta eskuinean zutabe bat gehitu diet euskarazko bertsoa alboan jartzeko. Jarraian, euskarazko bertsoarekin gauza bera egin dut, entzun apurka-apurka pertsonaiek zer esaten duten eta ingelesezkoaren parean idatzi. Irudi honetan ikus daiteke nola lan egin dudana:



Prozesu hau zenbait filmekin burutu dut: *The Color Purple*, *Slumdog Millionaire*, *The A Team*, *S raphine*, *Snatch*, *Harry Potter*... eta gero aukeraketa bat egin dut lanean zein aztertu erabakitzeko. Artikulu honetan batik bat geolektoekin, soziolektoekin eta tonuarekin aritu naiz.

4.1. KOLORE PURPURA

Lehen esan dudan moduan, ingelesezko azpтитuluak lortzeak lana asko errazten du; film honekin, ordea, zailtasunak izan nituen baina filma aztertu nahi nuen nola edo hala eta lortu beharra nuen. Sarean hainbat lekutan begiratu nuen baina aurkitzen nuenak ez ninduen asetzen, ez bainengoen seguru ondo zeudela. Ondorioz, Amazonetik DVDa erostea erabaki eta horrekin egin dut lan. Bigarren buruhaustea euskarazko bertsioak sortu dit: *Euskal Encoding* setik ezin zen filma jaitsi. Hainbat irtenbide aztertu ostean, webgunean pelikularen administratzaileari idatzi nion produktua ikertzeko behar nuela azalduz eta estekaren bat jartzeko eskatuz. Hiru asteren buruan, azkenik, jaso nuen Taichisanen erantzuna eta lortu nuen euskarazko bertsioa. Esan beharra dago gainerako filmak lortzeko ez dudala arazorik izan: batzuk DVDan eta besteak sarean lortu ditut.

The Color Purple (1985) Steven Spielbergekin zuzendutako filma da eta Alice Walkerren nobelan oinarrituta egin zen. Bertan, Celie neska afroamerikarraren bizitza kontatzen da. Neska kristaua, aitak bortxatu eta haurdun uzten du birritan eta hamalau urterekin gizon bortitza batekin ezkondu eta bizimodu latza izaten du. Pertsonaien profila, beraz, kristau afroamerikarra da eta hori hizkeran islatzen da, *Black Englisha* baitarabilte.

4.1.1. Black English

Black Englisha geolektoa da, batik bat Estatu Batuetako hego-ekialdean hitz egiten delako; baita soziolektoa ere, Afrikatik Ameriketara eraman zituzten esklaboaren artean sortutako kreoleratik baitator eta hortik deribatutako hizkera baita gaur egun afroamerikarrek darabilten *Black Englisha* (Mateo, 1990). Hizkera horrek hainbat ezaugarri ditu eta

Kolore Purpuran ageri dira. Jarraian, horiek aipatu eta ETBn nola itzuli dituzten behatuko dugu:

- a) Orokorrean, 3. pertsona singularrean *-s* kontsonantea galtzen da. Aldiz, *-s* hori joan behar ez den komunztaduretan ere gehitzen da:

Ingelesez	Euskaraz
Celie, Mister want another look at you.	Celie, jaun honek ikusi egin nahi zaitu.
And we'll both learn real hard before he break us apart.	Eta gogor ikasiko dugu biok zuk alde egin behar baino lehen.
Pauline. But I calls her Olivia	Pauline, baina Olivia deitzen diot
This don't like like it clean.	Hau ez du inork garbitu!
Don't she look like an Olivia to you?	Ondo doakiola ez deritzozu?

- b) Aditzen denbora adieraztea aukerakoa da. Adierazi beharrekoa da ekintza progresiboa den ala ez (Mateo, 1990):

Ingelesez	Euskaraz
Now, I'm go take right good care of your Nettie.	Nik ondo baino hobeto esango diot Nettieri.
What he doing to me, he done to her.	Orain nirekin egiten ari dena, lehen berarekin egingo zuen.
My little girl looks like she fretting over something.	Baina zerbaitek kezkatua zirudien.
Nice talking to you. My husband waiting .	Tira, atsegin handia izan dut. Senarra zain daukat.

c) “Kopula zero” (Mateo, 1990), hau da, subjektua eta predikatua lotzen dituen elementurik ez jartzea:

Ingelesez	Euskaraz
I can't let you have Nettie. She too young.	Nettie ezin dizut utzi. Gazteegia da
I laid there thinking about Nettie, while he on top of me.	Etzanda geratu naiz Nettierengan pentsatzen, nire jauna gainean dudala.
Who her daddy?	Nor da aita?
My heart say she mine.	Neure neskatoa da, bihotzak diost.

d) Batzuetan, *am* lehenengo pertsona singularra ez den formetan agertzen da edota *is/'s* 3. pertsona singularra ez denekin:

Ingelesez	Euskaraz
Like more us than us is ourself.	Gure aitaren antza dauka, eta neure antza ere bai, handia gainera.
She got my eyes, just like they is today.	Neure begiak dauzka. Nire gaurko begiak.

e) Dialekto honen ezaugarri markatuenetako bat ezezko bikoitzak dira eta *ain't*-en erabilera. Mateoren (1990) ustez egitura hori *West American Pidgin English*etik dator:

Ingelesez	Euskaraz
You better not tell nobody but God.	Jainkoak baino ez du jakin behar gurea denik.
Dear God, he act like he can't stand me no more .	Jainko laztana: orain ez nau begien aurrean ikusi nahi.
Ain't you got nothing better to do?	Ez al daukazue zeregin hoberik?
You ain't welcome home no more .	Alde nire etxetik!
Ain't you done yet?	Ez duzu egin oraindik?

f) Orainaldi eta iragan burutueta (*Present* eta *Past Perfect*) askotan *have* aditza ez da agertzen:

Ingelesez	Euskaraz
Then my mama dies, cussing and screaming because her heart been broke .	Orain ama hilik dago, atsekabearen atsekabez, guztiok oihuka madarikatuz.
I seen him looking at my little sister.	Irrikaz begiratzen dio nire ahizpa txikiari.
I got nobody to watch over my young'uns.	Ez daukat inor umeak hazteko.
She spoiled twice.	Erabilia dago, bi aldiz.

g) *To be* aditza ere usu ageri da jokatu gabe:

Ingelesez	Euskaraz
She be almost my age, but they getting married now.	Neure adinekoa da eta

	ezkontzera doaz.
He be biting and kicking on it	Ostikoka eta haginka hasi zait
It be like when you have a way of doing stuff an' you do it the same way all the time.	Ba, zerbait egiteko era bat daukazula eta halaxe egiten duzula beti.
Now us never apart.	Orain ez gaituzte bananduko.

h) Kontrakzioak: *I'm going to / I want to* moduko esaldietan *gonna* eta *wanna* egiturak ageri ohi dira:

Ingelesez	Euskaraz
I wanna marry your Nettie. I gotta have somebody right now.	Zuen Nettie nahi nuke. Lehenbailehen behar dut emaztea.

i) Askotan, erlatibozko perpausak izenordain-erlatiborik gabe txertatzen dira perpaus nagusian:

Ingelesez	Euskaraz
Why's \emptyset you call her Olivia when that ain't her name?	Zergatik deitzen diozu Olivia, izen hori ez badu?

j) Subjekturik gabeko esaldiak:

Ingeleseaz	Euskaraz
Ø Wonder she's safe.	Onik ote dago?
I just couldn't keep him off me. Ø Could stay here with you?	Ezin dut aita ingurutik kendu, zurekin hemen geratzerik banu...

k) Posesiboen 's-rik ez dute adierazten:

Ingeleseaz	Euskaraz
I'll take care of you, with God help .	Neuk zainduko zaitut, Jainkoaren laguntzaz.
It's bad luck to cut woman hair .	Neskei ilea mozteak zorte txarra dakar.

l) Kasu batzuetan hitzen amaierako letra ez dute ahoskatzen:

Ingeleseaz	Euskaraz
The kitchen need clean in '. The cow need mil kin '. My shirt need mend in '. My pants need fix in '. My shoes need shin in '. An ' my children need feed in '.	Garbitu sukaldea, eta eraitsi behiak, konpondu alkondara, josi nire frakak, garbitu nire botak, eta eman umeei afaria.
They be fighting an ' bleed in ' an ' throwing up on the floor sometimes.	Beti ari dira borrokan, odoletan eta ahoka ere egiten dute

Goiko adibideez bitartez, ingelesezko bertsioan ageri diren hizkuntza-aldaerei erreparatu ahal diegu. Ingelesak ezaugarritzat duen soziolekto bat osatzen dute eta, egia esan, ez dago euskaraz molde horien ordain zuzenik. Itzultzailea saia liteke efektuaren bila joaten euskalkiren batera itzulita testua, baina zein euskalkik emango lioke *Black English*ak testuari ematen dion kutsu hori? Apustu arriskutsua izan liteke euskalki batera itzultzea, izan ere, *Black English*a testuinguru zehatz batean garatzen da eta euskarak ez du testuinguru horren antzeko ezaugarrietan garatutako euskalkirik. Ondorioz, nahiz eta jatorrizko testuak duen berezitasuna galdu, euskara batuan itzultzen dela beha dezakegu, hots, neutralizatu egiten da eta euskarara itzulitako bertsioan ikusleak ez du jatorrizko bertsioiko ikusleak izango duen inpresio bera izango.

4.1.2. Tonua

Kolore Purpuraren beste aztergai bat pertsonaiek darabilten tonua da. Gogora dezagun tonuaz ari garenean pertsonaiek darabilten erregistroaz ari garela eta askotan pertsonaien arteko harremanek zehazten dutela. Filmean erregistro informaleko hamaika adibiderek in egin dezakegu topo. Gehienak gizonezkoen ahotik datoz.

Ingelesez	Euskaraz
Alright girl, your mama got supper	Tira, amak afaria prest dauka-eta
One day my daddy come and say...	Behin batean, aitak esan zidan ...
They be fightin' an' bleedin' an' throwin' up on the floor sometimes.	Beti ari dira borrokan, odoletan eta ahoka ere egiten dute.
But Nettie,you flat out can't have.now, not never.	Nettie ez da zuretzat ez orain eta ez gero.
Shut up!	Isildu zaitez!
Can Nettie stau with us for a spell?	Gera daiteke Nettie gurekin

	egun batzuetan?
Now get the hell out of my house!	Inozotzat hartu nauzue? Alde nire etxetik!

Ingelesezko bertsioek informaltasun handiagoa dutela esango genuke, adibide batzuk hizkera kolokialaren adibide ere badira: *d*, *e* eta *g*, kasu. Halere, nahiz eta euskaraz ere neutrotik mailaz jaisten den, uste dugu euskara batua zabaltasun horretara ez dela jaisten. Aipatu beharra dago, ordea, euskarazko bertsioan hikara jo izan dela informaltasun horri eustearren. Hona hemen adibide bat:

Ingelesez	Euskaraz
I'll get you .	Harrapatuko haut!

Hizkera informaletik kultora ere egiten da salto filmean eta formalitate hori erlijioari eskutik lotuta doa apaizak hitz egiten duenean:

Ingelesez	Euskaraz
It is therefore not to be entered into lightly or unadvisedly but reverently and soberly and in the fear of God. Let us pray. Dear Lord, we ask your blessing on our brother, Harris! Amen!	Hasi ba alai eta pozik zuen bizimodu berria, baina begirunez eta Jainkoaren beldurrez. Egin dezagun otoitz. Jauna, isuri, arren zure onespena James David Harris eta Didia Greenen gainera! Amen!

Bi bertsioetan hizkuntza jaso nabarmentzen da.

4.2. HARRY POTTER

Erabiltzailearen araberrako hizkuntza-aldaerekin jarraituz, lanaren atal honetan idiolektoa lantzeari helduko diogu. Gogora dezagun idiolektoa banakoaren hitz

egiteko era dela. *Harry Potter* film zein liburuek aspektu hori lantzeko aukera paregabea eskaintzen digute.

Harry Potter saga zazpi liburu eta zortzi filmez osatuta dago eta J.K. Rowling idazle britainiarraren obra da. Bertan, Harry Potter aztiaren istorioa kontatzen da. Hogwarts magia eta azti eskolan ikasten du eta pertsonaien artean Hagrid erraldoia dago, izaki magikoen eta eskolaren zaintzailea. Pertsonaia horren idiolektoa da, hain zuzen, aztergai duguna.

4.2.1. Hagriden idiolektoa

Rowlingen ingelesezko bertsioan (liburu eta filmetan), Hagridek hitz egiteko modu berezia du. Erresuma Batuko hainbat dialekto geografikoren aldaera fonetikoak hartzen ditu, batik bat Cockney ingurukoak, Londres mendebaldeko landa ingurukoak, eta Erresuma Batu iparraldekoak (Sánchez). Bere hitz egiteko era estatus sozial baxuarekin lot daiteke.

Liburuak Iñaki Mendigurenek itzuli zituen eta Hagriden idiolektoaren erronkari aurre egin behar izan zion. Aukeretako bat idiolektoaren markak ezabatu eta neutralizaziora jota estandarrean itzultzea izan zitekeen baina Mendigurenek Hagriden hizkera gainerako pertsonaiengandik desberdindu nahi izan zuen eta dialektoa beste dialekto batekin ordeztzea erabaki zuen, bizkaierarekin, hain zuzen ere. Liburuetan itzuli zen moduari leial izanik, filmetan ere Hagridek bizkaieraz hitz egiten du.

Jarraian, ingelesezko bertsioa Hagriden idiolektoaren berezitasunak azalduko ditugu eta bizkaieraz nola itzuli den ikusiko dugu:

a) *-ing* formetan *-g* ez du ahoskatzen:

Ingelesez	Euskaraz
A wizard. An' a thumpin' good'un at tha', I'd wager.	Aztia. Oso azti ona, gainera, jardun ezkerro, jakina.

Thought yeh were leavin' withou' sayin' good-bye, didja?	Agur esan barik joango zinela uste neban , Harry.
---	--

b) Amaierako *-t* ez du ahoskatzen kontsonante baten ondoren. Bokal baten ostean batzuetan ahoskatzen du. Kontrakzioetan ere amaierako *-t* ez du ahoskatzen:

Ingeleseaz	Euskaraz
Sorry abou' tha' .	Gura barik izan da.
Didn' think yer mum and dad would leave yeh with nothin', no didja?	Gurasoek ez entsuela ezer laga uste zenduan , ala?

c) Laburtutako aditz modala + *have* + partizipioa duten egituretan:

Ingeleseaz	Euskaraz
Shouldn'ta said tha'. No more questions. Don' ask any more questions. Tha's top secret, tha' is.	Ez nuen hori esan behar. Ez galdetu gehiago! Galdera gehiago ez! Sekretu handia da ta.

d) Hainbat espresio ere laburtzen ditu:

Ingeleseaz	Euskaraz
I dunno . I never saw his face. He kept his hood up.	Ez dakit... ez neutsan aurpegia ikusi, ez eban txanoa kendu.
A wand? Well, yeh'll wan' Ollivanders. There ain't no place better. Why don' yeh run along there, bu' wait. I jus' got one more	Makila? Hori Ollivanders-en. Makila onenak ditu. Ardura deutsu bakarrik bazoaz? Zeregin bat daukat. Berehala

thin' I **gotta** do. Won' be lon'. | nator.

e) Hainbat hitz arruntei lehen edo azken kontsonantea kentzen die.
Bokaletan ere aldaketak egin ohi ditu:

Ingeleseaz	Euskaraz
Oh, an' I suppose a great Muggle like yerself's goin' ter stop ' im , are yeh ?	Oo... bai, zu bezalako muggle kaskar batek galaraziko deutso , ezta?
Oh, well, o' course you are! Go' somehin' fer yeh . ' Fraid I mighta sa' on it at some point! Bu' I imagine tha' it'll taste fine jus' the same. Ahh. Baked it myself. Words an' all. Heh.	Zu zara, jakina! Gauza bat ekarri deutsut . Gainean jesarri naz halako batean, baina lehen bezain goxoa egongo dala uste dot . Neuk egin dot , letra eta guzti.

Euskarazko filmetan, esan dugun moduan, euskara batura itzuli ohi da baina Harry Potter saga salbuespena dugu. Mendigurenen itzulpena jarraiki, Hagridek bizkaieraz hitz egiten du eta, horrela, gainerako pertsonaiekin desberdindu egiten da, geografikoki behintzat. Ikusle batzuk kritikatu zuten bizkaiera arlote hizkerarekin parekatzen zela eta prestigio gabeko euskalki moduan agertzen zela. Halere, kontuan hartu behar da Hagrid ez dela arlote bat, baizik eta dialekto berezi bat darabilen pertsonaia bat. Horren harira, *Osdir* webgunean “Luistxo”k honako hau idatzi zuen: “Itzultzaileak bizkaieradun bihurtu du arlotea? Ala irakurleak arlote bihurtu du bizkaieraduna?” Dena dela, Mendigurenek argi utzi nahi izan zuen bere asmoa Hagriden idiolektoa bereiztea izan zela (*in* Pérez, 2005).

4.3. *SNATCH*

Guy Ritchie zuzendari britainiarraren eskutik egindako filma dugu *Snatch*. Diamantea da protagonista gangsterren pelikula honetan, non legez kanpoko

boxeo-apustuak, arma trafikatzaileak, estatubatuarrak eta errusiarrak, juduak, txerri goseti talde bat eta abar jokoan sartzen diren harribitxia eskuratzeko.

Istoriaa garatzen den testuinguruan, pertsonaien arteko hizkera zabarra da nagusi. Pertsonaiak mugitzen diren giroan hizkera informala erabiltzen da eta hori da jarraian aztertuko duguna. Gidoia lortzeko metodologiari dagokionez, esan behar da sarean ingelesezko dialogoaren oso gidoi zehatza aurkitu nuela (lokalizazio eta guzti) eta horrekin egin dut lan filmaren ingelesezko bertsioarekin bat datorrela egiaztatu ostean. Euskarazko bikoizketa *Euskal Encoding*etik jaitsi eta esaldiz esaldi Worden ingelesezkoaren alboan idazten joan naiz.

4.3.1. Tonua

Esan bezala, inguru kriminaletan dabilzan pertsonaien artean hizkera zabarra da nagusi eta ingelesez hizkera gordina darabilte ahoan. Euskaraz ez da joera handirik tonu horretan idazteko, euskal literaturan kaleko hizkera ez baita sakon landu. Halere, gaur egun, ikus-entzunezko produktuekin euskarara lehendik mamitu gabe zeuden moldeak heldu dira eta, ondorioz, arlo horietan hutsuneak bete behar izan dira. Beha dezagun, beraz, zer nolako euskara jarri duten filmeko pertsonaien ahotan.

a) Ingelesez *fuck* hitza barra-barra esaten da. Hona hemen adibide batzuk:

Ingelesez	Euskaraz
Get on the fucking floor!	Lurrera joateko, joder!
You mean Boris the sneaky fucking Russian?	Boris, errusiar putaseme iheskorra?
What the fuck are you two looking at?	Ze(r) ostiari begiratzen diozue zuek?
Get somebody to steal that fucking stone!	Ez lapurtu zeuk harri puta hori!

Lau adibide horietan ikus dezakegu *fuck* hitza euskaraz hainbat ordainez ordezkatu dela euskaraz eta, gure aburuz, euskarazko bertsioek lortzen dute jatorrizko bertsioan agertzen den tonu bortitza transmititzea.

b) Hizkera kolokiala eta *slanga* edo argota ere aurkitu dugu gidoietan eta jarraian argot hori agertzen den hainbat adibiderekkin batera itzulpenak behatuko ditugu:

Ingeleseaz	Euskaraz
(karabana zahar bati buruz) TOMMY: What's wrong with this one? TURKISH: : Oh, nothing, Tommy. It's tiptop . It's just I'm not sure about the color. It's all arranged. You just got to pick it up. Here's an address. TOMMY: It's a campsite. TURKISH: You've got 10 grand , and it would be nice to see change.	TOMMY: Ze akats du honek? TURKO: Bat ere ez, Tommy. Goi-mailakoa da. Baina ez zait kolorea gustatzen. Hitz eginda dago. Ekarri besterik ez duzu egin behar. Hona helbidea. TOMMY: Kanpalekua da. TURKO: Hona 10 handi , eta kanbioak ikusi nahi nituzke.

Tiptopek oso kalitate onekoa esan nahi du (Oxford Dictionaries) eta *WordReferencen* arabera, gaztelaniaz “chachi” edo “super guay” moduko ordainez itzuliko litzateke. Euskaraz “goi-mailakoa” erabiltzen da baina, gure uste apalean, informaltasun hori galdu egiten du.

Hona hemen beste adibide bat:

Ingeleseaz	Euskaraz
TOMMY: It's for protection	TOMMY: Babesteko.

TURKISH: Protection from what? "Zee" Germans? What's to stop it blowing your bollocks off every time you sit down?	TURKO: Norengandik? Alprojengandik? Barrabilak lehertuko dituzu esertzean.
---	---

“Zee” Germans alemani burla egiteko erabiltzen den espresioa da, ingelesez “th” ahoskatzeko dituzten zailtasunengatik. Euskaraz beste termino batez itzuli dute ikusleek ez bailukete ulertuko zeri egingo litzaiokeen barre.

Erresuma Batuko argotaren beste adibide bat *bollocks* dugu eta barrabilei egiten die erreferentzia. Halere, “barrabil” edo “testikulu” ordainek ez dute *bollock*sek duen kutsu trauskila eta testuinguruan “potro” jartzean jatorrizkoan hizkuntza-aldaerak adierazi nahi duen zabarkeria hobeto islatuko lukeela uste dugu. *Slangaren* adibideekin jarraituz, honatx adibide gehiago:

Ingelesez	Euskaraz
TURKISH: Apparently, it's just impossible to kill the bastard .	TURKO: Itxura denez, ez da oraindik jaio putaseme hori hilko duenik.
BRICK TOP: You reckon that's what people should do for me, Gary?	ADREILU: Hori egin behar du jendeak nigatik, Gary?
BRICK TOP: Pull your tongue out of my arsehole , Gary.	ADREILU: Atera zure mihia nire ipurtzulotik , Gary.
BORIS: You're a ruthless little cunt , Liam. I'll give you that. But I got no time for grouses . Feed him to the pigs, Errol. What the fuck are you two looking at?	ADREILU: Kupidarik gabeko alua zara, Liam. Baina ez dut salataririk nahi. Txerri-janetarako, Errol. Ze ostiari begiratzen diozue zuek?

Adibide horiez gain beste hainbeste ageri dira filmean zehar, gidoiari kutsu trauskil hori emanaz. Euskarazko bertsioek badutela beren ukitu zabar hori uste dugu eta euskarazkoa ikusten dutenek ere izango dute pertsonaien hizkera landugabearen sententzioa. Baina hizkuntza-aldaeren itzulpena ez da hitz bakantara soilik mugatzen eta film honen kasuan uste dugu egiazkotasuna handitu egingo litzatekeela pertsonaiek hika erabiliko balute, izan ere, uste dugu euskarak duen baliabide hori oso erabilgarria gerta daitekeela mota honetako ikus-entzunezko produktuetan.

4.3.2. Azentua

Dialekto geografikoen ezaugarrietako bat azentua dela aipatu dugu lehen. Filmean errusiarrak ageri dira eta ingelesez aurrean ezberdintasun bat egitearren azentua jartzen zaie sobietarrei. Hori euskarazko bertsioan ere egin dute, pertsonaia horiei azentua aldatu zaie eta, adibidez, “s”ak ahoskatu beharrean “z” esaten dute:

“Ezan dizut bezoari lotuta daukan maletan daramala. Piztola bat erozteko bidali dizut. Zer gehiago nahi duzu neuk hiltzea? Baina zeuk ere etzazu hil. Amerikarrek zuzmatzen badute, ni garbituko naute. (...) Boriz, nire anaia zara, pentzatu nire anaia zarela! Ez lapurtu zeuk harri puta hori! Eztitut nire atzetik eduki nahi-eta! Eta ez agindu hiltzeko, Boriz. Zuzmo tzarra hartuko dute. Ez erabili inozorik, beraz. Bi egunez egongo da Londrez eta New Yorkera joango da gero. Bizkor ibili, ongi?”

Euskarazko bertsioan hori izango litzateke elkarrizketa baten transkripzioa. Ingelesezko bertsioan ere egiten dituzte aldaketa fonetikoak: hitz egiteko eraren melodia aldatzeaz gain “r”-ak eta “z”-k markatu egiten dituzte errusiarrek. Aldaketa fonetiko horiei esker, bi bertsioetan nabari dezakegu gainerako pertsonaiekin alderatuta leku geografiko desberdinekoak direla.

5. ONDORIOAK

Analisi honen bitartez nabarmendu nahi izan da hizkuntza-aldaerek garrantzi handia dutela ikus-entzunezko produktuetan eta eragina dutela testu mota horien sinesgarritasunean. Gai honek arazo eta oztopo ugari ekartzen dizkio itzultzaileari eta nahiz eta aldaeren itzulpenarako soluzio finkorik ez egon, ikusi dugu berez ez direla itzulezinak. Gure *corpusean* argi ikusten da itzultzaileek gehienetan neutralizazioaren estrategia erabiltzen dutela, batik bat ingelesezko dialektoekin.

Analisian zehar aspektu jakin batzuk landu ditugu. Berezik erabiltzailearen araberrako hizkuntza-aldaeretara bideratu nahi izan dugu lana. *Kolore Purpura* filmaren ezaugarri nabarmenetako bat pertsonaiek darabilten *Black Englisha* dela esan dugu eta xede-hizkuntzan euskaraz bereizgarri horren trazuak desagertu egiten dira, hau da, dialekto-aldaeraren markak galdu egiten dira, baliokidetasun dialektala aurkitzeko zailtasunak direla-eta.

Neutralizatzea ez da konponbide bakarra, ordea, ETBn egon izan dira geolektoei nola erantzun asmatzeko zenbait saiakera eta horren adibide dugu *Harry Potterreko* Hagrid. Erraldoiak ingelesezko bertsoan azentu propioa erabiltzeaz gain gramatika ere berezia darabil eta Hagriden hizkera berezia euskaraz bizkaierarekin itzuli eta bikoiztu da, jatorrizkoan bezala gainerako pertsonaien hizkeratik bereiztearren. Beraz, dialektoen itzulpenari dagokionez jokaera bat baino gehiagorekin egin dugu topo itzulpenetan, ez baitago adostasun unibertsalik, nahiz eta euskaraz neutralizatzeko joera egon.

Aztertu ditugun beste hizkuntza-aldaera mota batzuetan, aldaera bakoitza dagokion baliokidearekin itzultzeko saiakera egiten da xede-hizkuntzan, batik bat kaleko hizkera kolokialari eta lexikoari dagokienez. Itzultzaileak adi egon behar du pertsonaiek darabilten erregistroetan. Pelikuletan erregistrorik jasoena eta informalena ere elkarrizketa berean nahas daitezke eta zantzu horiek errespetatzea komeni da.

Ikertu ditugun filmetan azentua ere aipatu dugu. Nahiz eta beren narrazio- eta deskripzio-garrantzia izan, askotan ez da ondo jakiten nola markatu itzulpenetan.

Snatchen ikusi dugu azentuen adibidea eta, bertan, ingelesezko bertsioan aldaketa fonologikoak agertzen direla aipatu dugu eta euskarazko bikoizketaren ikusleek ere aldaketa fonologiko horiek antzeman ditzaketela esan dugu: fonema batzuen ahoskera aldatu da eta melodia ere desberdina da.

Eta ikusi dugun bezala, tonuarekin gauza bera gertatzen da. Filmeko dialogoak kaleko hizkera gordinez beteta badaude, itzultzaileari igortzen zaion testuak ere irain guztiak jaso behar ditu, itxura zabarregia badu ere. Itzulpenaren eginbearra jatorrizko testuak igorritako efektuen bila joatea da eta horretan datza hizkuntza-aldaeren itzulpenarekin jolastea. Azken finean, jatorrizko gidoiak zehaztuko du hizkeraren zer-nolakoa.

6. BIBLIOGRAFIA

- AGOST, R. (1998), “La importància de la variació lingüística en la traducció”, *Quaderns. Revista de traducció*, 2: 83-95.
- CAPRARA, G. ETA SISTI, A. (2011), “Variación lingüística y traducción audiovisual (el doblaje y subtitulado de *Gomorra*)”, *AdVersus*, 8: 150-169.
- FERNÁNDEZ, R. ETA SAMANIEGO, E. (2002), “La variación lingüística en los estudios de traducción”, *EPOS*, 18: 325-342.
- HATIM, B. ETA MASON, I. (1990), *Discourse and the translator*. London: Longman.
- HATIM, B. ETA MASON, I. (1997), *The Translator as Communicator*. London: Routledge.
- LARRINAGA, A. (2003), “Kaleko hizkera telebistako saioetan”, *BAT aldizkaria*, 48: 39-51.
- LARRINAGA, A. (2008), “Hizkuntza aldaerak telebistan”, In Euskaltzaindia (arg.), *Euskalgintza XXI. Mendeari buruz. XV. Biltzarra. Iker 19*. Bilbo: 39-46.
- LOMEÑA, M. (2009), “Variación lingüística y traducción para el doblaje: Mujeres al borde de un ataque de nervios”, *Entreculturas*, 1: 275-282.
- MATEO, M. (1990), “La traducción del *Black English* y el argot negro norteamericano”, *Revista Alicantina de Estudios Ingleses*, 3: 97-106
- MAYORAL, R. (1997), *La traducción de la variación lingüística*. Doktorego tesia. Granada: Granako Unibertsitatea.
- PÉREZ L. DE HEREDIA, M. (2005), “Una aproximación intertextual al viaje de Harry Potter por la cultura vasca”, In ROMANA, M. L. (arg.) *II AIETI. Actas del II*

Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación. Madrid, 9-11 de febrero de 2005. Madrid: 989-1004.

ROWLING, J.K. (1997), *Harry Potter and the Philosopher's Stone*. London: Bloomsbury Publishing.

SAREKO BALIABIDEAK

“LUISTXO”, Hagriden bizkaierari buruzko hainbat iritzi:

<http://osdir.com/ml/culture.language.basque.itzul/2000-12/msg00097.html>

[Kontsulta: 2015/06/08]

MORRIS, M. (2000), “Bizkaiera ez da arlotea, baina Eskoziako ingelesa ere ez”:

<https://groups.yahoo.com/neo/groups/itzul/conversations/messages/5967>

[Kontsulta: 2015/06/08]

OXFORD HIZTEGIAK: <http://www.oxforddictionaries.com/es/>

[Kontsulta: 2015/06/02]

SÁNCHEZ, A.M. (¹), “Análisis del dialecto visual en *Harry Potter y la Orden del Fénix*”, https://www.academia.edu/7300397/Harry_Potter_The_Order_of_the_Phoenix_and_Eye_dialect

[Kontsulta: 2015/06/05]

SNATCH filmaren ingelesezko bertsioa Interneten:

<http://putlocker.tn/snatch/>

[Kontsulta: 2015/05/27]

FILMAK

COLUMBUS, C. (zuzendaria), (2001), *Harry Potter and the Philosopher's stone* [filma]. Erresuma Batua: Warner Bros. Pictures. (147 min.).

¹ Ez da artikularen argitaratze datarik lortu.

SPIELBERG, S. (zuzendaria) (1985), *The Color Purple* [filma]. Estatu Batuak: Warner Bros. Pictures. (148 min.).

RITCHIE, G. (zuzendaria) (2000), *Snatch* [filma]. Erresuma Batua: Columbia Pictures. (104 min.).